

Getxo >MEETING<



Urriak 19 Networking on baterako gakoak

Networking egunak oso harrera ona izan zuen Punta Begoñan, sortu zen giroagatik eta ehundu ziren loturengatik.

Baliagarriak izan ziren gako batzuk emango dizkizuegu, aurrerago lagungarriak izan daitezke eta. Biltzar bateko kaferako etenaldian edota inor ezagutzen ez duzun ekitaldi batean:

1. Ezer baino lehen, jar zaitez harremanetan: Sareak pertsonen artean ehuntzen dira. Beraz, garrantzitsua da benetako lotura hori sortzea, zure negozioak zuzenean lortuko duenaz arduratu baino, pertsona hori ezagutzeko eta harengandik ikasteko baizik. Negozioak edota aukerak, halakorik ematen bada, sortutako konfiantzaren ondorio izango dira.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • www.getxo.eus/promocion-economica

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:



2. Entzun besteak dioena ulertzeko. Egin galderak hobeto barneratzeko. Horrela, elkarrizketa loturak sortuko dituzu. Zure esku-hartzea bikaina izateaz arduratu baino, garrantzia eman benetakoa izateari.
3. Jarri adibideak egiten duzun lan mota azaltzeko. Batez ere, zehaztu zen den errepikatzea nahi duzun lan mota.
4. Koherentzia online-offline: Norbaiti zuzenean zertan jarduten duzun azalduko badiozu, garrantzitsua da zure sareak edo webgunea bat etortzea. Topaketa horren ondoren, pertsona horrek sareetan aurkituko zaitu. Mezua zentzuzkoa izan behar da; izan ere, koherentziak konfiantza eragiten du.
5. Aholkuak eskatu eta eman, soilik giro ona sortu bada. Aholku bat eman baino lehen hobe da “aholku/ideia bat eman ahal dizut?” galdetzea. Horrela saihestuko duzu asmo onekin bada ere inork eskatu ez dizun aholku bat ematea.
6. Gogoratu networkinga zera dela, merkataritza lana modu atseginean egitea. Inspiratzeko eta inspirazio iturri izateko balio du. Gainera, grina pizteko eta parekoen artean laguntzeko ere balio du.
7. Gogoratu benetako lana geroago hasiko dela. Jarri harremanetan berarekin posta elektronikoz edo LinkedIn bidez.

Zer iruditu zaizkizu aholku horiek? Zein gehituko zenuke zuk?

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • www.getxo.eus/promocion-economica

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:

